Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Maribel Vaqueroren hitzaldia
Bilbo. 2026.11.13

Gazteok, gauza bat esan nahi dizuet.

Ez sinetsi esaten dizueten guztia. Ez onartu ezer besterik gabe, zuen alde ari direla esaten dutelako. Izan kritikoak. Galdetu, zalantzan jarri, azalpenak eskatu. Eta, batez ere, koherentzia eskatu.

Gazteak defendatzea ez baita nahikoa etxebizitza eskubide bat dela esatea edo diskurtso politiko politak egitea. Gazteak benetan defendatzea, erabakiak hartzea da, emantzipatu ahal izateko, etxebizitza bat eskuratzeko eta hemen, gure herrian, zuen bizitza-proiektua aurrera eramateko aukera izan dezazuen. Etxebizitzarik gabe ez baitago etxebizitza politikarik.

Politikan, ordea, koherentzia behar da. Zintzo jokatu behar da, Herriari gezurrik esan gabe.

Ezin da, Ezker Abertzaleak egin duen bezala, Madrilen lege bat babestu, haren hutsuneak ezagutu eta, gero, ondorioak gure autogobernuari eragiten diotenean, ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu.

Batez ere, Estatuari gure erabakitzeko eskubidea urratzeko atea irekitzen diozunean. Ze gertatuko da, ate horren beste aldean PP-VOX direnean, zer esango du orduan EH Bilduk? Etxebizitza Legearekin ezker abertzaleak, argazki elektoralista baten truke, Eusko legebiltzarraren erabaki ahalmena hustu zuen. Eta orain zer?

Ez, lagunok! Politikan erantzukizuna behar da. Erabakiak hartzen dituenak bere erabakien ardura hartu behar du ere.

Baina gauza bat argi utzi nahi dizuet: kritikatzea ez da nahikoa. Proposamenak egin behar dira. Ideiak mahai gainean jarri, alternatibak landu eta horiek defendatzeko ausardia izan.

EL PNV ha sido propositivo en materia de vivienda, con propuestas adaptadas a la realidad; para impedir la especulación, proteger al vulnerable y dar seguridad a los pequeños propietarios.

Impulsando que se regule la vivienda de temporada, y presentando una Proposición de Ley para que se modifique la Ley del Suelo y así dotar de mayor seguridad y rapidez a los planes urbanísticos.

Porque, además de regular, es necesario construir: construir más vivienda protegida, tasada y libre. En alquiler y en compra. Porque sin vivienda no hay política de vivienda.

Y para eso en necesario acordar, porque los grandes retos, como el de la vivienda necesitan de grandes acuerdos. Así lo hemos hecho en Euskadi, donde gobernamos. Por cierto, donde EH

Bildu siempre dice no, al contrario que en Madrid, que siempre dice sí, aunque se proponga algo similar.

Ez ditugu etsita dauden gazteak nahi. Ez dugu nahi ezer alda ezin daitekeela pentsatzea. Gazte aktiboak, kritikoak eta konprometituak nahi ditugu. Parte hartuko dutenak, gauzak zalantzan jarriko dituztenak eta gauzak aldatzeko prest egongo direnak.

Zuen etorkizunaz ari gara. Etxebizitzaz, lanaz, aukerez eta Euskadiren etorkizunaz. Eta hori guztia ezin da erabaki gazteak kontuan hartu gabe.

Eusko Alderdi Jeltzaleak aurrea egiteko aseguru Poliza bat eskaintzen dizuegu, bi printzipioekin:

- PP-Vox tandemari aurre egiteko
- Euskadi eta gure autogobernua defendatuko defendatzeko

Eta Plan bat dugu, proiektua, ibilbide orri bat; zuen interesak, gazteenak, nahiak eta beharrak defendatzeko. Ez galdu konfrontazioko blokeetan, demokrazia eta hitza defendatu. Inboluzio demokratikoari aurre egin, euskara eta Euskadi defendatu eta zaindu.

Gora Euskadi Askatuta!